



**EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO**

GIZA EZKUBIDEEN ETA HERRITARREN ESKAEREN BATZORDEA  
COMISIÓN DE DERECHOS HUMANOS Y SOLICITUDES CIUDADANAS

**GIZA ESKUBIDEEN ETA HERRITARREN  
ESKAEREN BATZORDEZ**

Honen bidez jakinarazten dizut batzordeak otsailaren 24an egingo duen bilkuraren gai-zerrendako 5. puntua, ondoren zehaztuta datorrena, erretiratua izan dela talde proposatzaileak eskaturik.

5. Mistoa-EA legebiltzar-taldeak aurkeztutako legez besteko proposamena, Juan Jose Rego Vidal euskal presoaren egoerari buruz. Proposamenaren eta aurkeztutako zuzenketen eztatanda eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0205]

**Eusko Legebiltzarra, 2010eko  
otsailaren 22a**

**COMISIÓN DE DERECHOS HUMANOS Y  
SOLICITUDES CIUDADANAS**

Pongo en su conocimiento que el punto 5 del orden del día de la sesión a celebrar por la comisión el 24 de febrero, indicado a continuación, ha sido retirado a petición del grupo proponente.

5. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Mixto-EA sobre la situación del preso vasco Juan Jose Rego Vidal, y de las enmiendas presentadas. [09\11\02\01\0205]

**Parlamento Vasco, 22 de febrero de  
2010**

**Andoni Iturbe Mach  
Legelaria / Letrado**





**EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO**

**GIZA ESKUBIDEEN ETA HERRITARREN ESKAEREN BATZORDEA  
COMISIÓN DE DERECHOS HUMANOS Y SOLICITUDES CIUDADANAS**

**GIZA ESKUBIDEEN ETA HERRITARREN  
ESKAEREN BATZORDEA**

Honen bidez jakinarazten dizut aldatu egin dela Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordeak otsailaren 24an (asteazkena), 16:00etan, Eusko Legebiltzarreko 4. aretoan egin beharreko bilkurako gai-zerrenda. Hauxe izango da

**GAI ZERRENDA**

1. 2010eko otsailaren 10ean egindako bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onestea.
2. Galdera, Maribel Vaquero Montero Euzko Abertzaleak taldeko legebiltzarkideak Justizia eta Herri Administrazioako sailburuari egina, Bakerako Urratsak programari buruz. [09\10\05\02\0061]
3. Mistoa-UPyD legebiltzar-taldeak aurkeztutako legez besteko proposamena, Ai Weiwei artista eta "blogari" txinatarrari elkartasuna eta babesa adierazteari buruz. Proposamenaren eta aurkeztutako zuzenketen eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0181]
4. Mistoa-UPyD legebiltzar-taldeak aurkeztutako legez besteko proposamena, kondenatu berri duten Liu Xiaobo txinatar disidenteari elkartasuna eta babesa adierazteari buruz. Proposamenaren eta aurkeztutako zuzenketen eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0204]
5. Mistoa-EA legebiltzar-taldeak aurkeztutako legez besteko proposamena, Juan Jose Rego Vidal euskal presoaren egoerari buruz. Proposamenaren eta aurkeztutako zuzenketen eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0205]

**COMISIÓN DE DERECHOS HUMANOS Y  
SOLICITUDES CIUDADANAS**

Pongo en su conocimiento que se altera el orden del día de la sesión a celebrar por la Comisión de Derechos Humanos y Solicitudes Ciudadanas el día 24 de febrero, miércoles, a las 16:00, en la sede del Parlamento Vasco (sala 4), quedando el siguiente

**ORDEN DEL DÍA**

1. Lectura y aprobación, en su caso, del acta de la sesión celebrada el día 10 de febrero de 2010.
2. Pregunta formulada por D.º Maribel Vaquero Montero, parlamentaria del grupo Nacionalistas Vascos, a la consejera de Justicia y Administración Pública, sobre el programa Dando Pasos hacia la Paz. [09\10\05\02\0061]
3. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Mixto-UPyD sobre solidaridad y apoyo al artista y "bloguero" chino Ai Weiwei, y de las enmiendas presentadas. [09\11\02\01\0181]
4. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Mixto-UPyD sobre solidaridad y apoyo al disidente chino Liu Xiaobo, recientemente condenado, y de las enmiendas presentadas. [09\11\02\01\0204]
5. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Mixto-EA sobre la situación del preso vasco Juan Jose Rego Vidal, y de las enmiendas presentadas. [09\11\02\01\0205]





6. Eskariak eta galderak.

**Eusko Legebiltzarra,**  
otsailaren 16a

2010eko

6. Ruegos y preguntas.

**Parlamento Vasco, 16 de febrero de**  
2010

**Andoni Iturbe Mach**  
Legelaria / Letrado



**Bakerako Urratsak programari buruz** (Tramitatzeko onartzea)  
(09/10.05.02.0061)

Mahaiaik, 2009ko azaroaren 17ko bileran, erabaki du tramitatzeko onartzea, batzordean ahoz erantzuteko, Maribel Vaquero Montero Euzko Abertzaleak taldeko legebiltzarkideak Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuari egindako GALDERA, eta agindu du Euzko Jaurilaritari eta Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordeari bidal dakiela eta Euzko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

**Euzko Legebiltzarreko lehendakaria**  
**Arantza Quiroga Cia**

Giza Eskubideak eta Herritarren Eskaeren Batzordeko Mahaiairi

Maribel Vaquero Montero Euzko Abertzaleak legebiltzar-taldeko legebiltzarkideak, indarrean dagoen Erregelamenduaz baliatuz, Euzko Legebiltzarreko Giza Eskubideak eta Herritarren Eskaeren Batzordean ondoko ahoz erantzuteko galdera egiten dio Justizia eta Herri Administrazioiko sailburu den Idoia Mendia andreari, Bakerako Urratsak programari buruz.

Zioa:

Sailburuak batzordean egindako agerraldian eta prentsan Gobernuak Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Euskal Plana 2008-2011 birmoldatu egingo duela esan du.

Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Euskal Planaren ekimenen parte izan den "Dando pasos hacia la Paz-Bakerako Urratsak" programaren ebaluaketa egin zen aurreko legealdi amaieran.

Hori dela eta,

- Zein da "Dando pasos hacia la paz- Bakerako urratsak" programari buruz sailburuak duen iritzia?

**Maribel Vaquero Montero, Euzko Abertzaleak taldeko legebiltzarkidea**

\*\*\*

**Sobre el programa Dando Pasos hacia la Paz** (Admisión a trámite)  
(09/10.05.02.0061)

La Mesa, en su reunión del día 17 de noviembre de 2009, acuerda admitir a trámite para su respuesta oral en comisión la PREGUNTA formulada a la consejera de Justicia y Administración Pública por D.º Maribel Vaquero Montero, parlamentaria del grupo Nacionalistas Vascos, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y a la Comisión de de Derechos Humanos y Solicitudes Ciudadanas, y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco**  
**Arantza Quiroga Cia**

A la Mesa de la Comisión de Derechos Humanos y Solicitudes Ciudadanas

Maribel Vaquero Montero, parlamentaria del grupo Nacionalistas Vascos, al amparo del vigente Reglamento, presenta la siguiente pregunta para respuesta oral en comisión a la consejera de Justicia y Administración Pública, Idoia Mendia, sobre el programa Dando Pasos hacia la Paz.

Justificación:

La consejera ha afirmado en su comparecencia ante la comisión y en prensa que el Gobierno va a remodelar el Plan Vasco para la Paz y los Derechos Humanos 2008-2011.

Al final de la pasada legislatura se llevó a cabo la evaluación del programa "Dando pasos hacia la Paz-Bakerako Urratsak", iniciativa que ha formado parte del Plan Vasco para la Paz y los Derechos Humanos.

En consecuencia,

- ¿Cuál es la opinión que tiene la consejera sobre el programa "Dando pasos hacia la paz-Bakerako urratsak"?

**Maribel Vaquero Montero, parlamentaria del grupo Nacionalistas Vascos**

\*\*\*



**Sobre solidaridad y apoyo al artista y "bloguero" chino Ai Weiwei** (Admisión a trámite)  
(09/11.02.01.0181)

La Mesa, en su reunión del día 21 de diciembre de 2009, acuerda admitir a trámite para su debate en comisión la PROPOSICIÓN NO DE LEY formulada por el grupo parlamentario Mixto-UPyD, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y a la Comisión de Derechos Humanos y Solicitudes Ciudadanas, y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

Los grupos parlamentarios, conforme a lo dispuesto en el artículo 173.3 del vigente Reglamento de la Cámara, podrán presentar dentro de los siete días hábiles siguientes al de esta publicación las enmiendas que consideren pertinentes, mediante escrito motivado y dirigido a la Mesa.

**La presidenta del Parlamento Vasco**  
**Arantza Quiroga Cia**

A la Mesa del Parlamento Vasco

Gorka Maneiro Labayen, parlamentario del Grupo Mixto-UPyD, al amparo del vigente reglamento, tiene el honor de presentar la siguiente proposición no de ley para su debate en la Comisión de Derechos Humanos y Solicitudes Ciudadanas, sobre solidaridad y apoyo al artista y bloguero chino Ai Weiwei.

Justificación:

Ai Weiwei es el artista más influyente de China y uno de los más interesantes del panorama internacional. Utiliza habitualmente su prestigio para denunciar la censura y los abusos que el poder ejerce en su país. El pasado mes de setiembre, fue operado *in extremis*, después de hacer sufrido un derrame cerebral provocado por los golpes de la policía. Había acudido a Sichuan desde su Pekín natal para declarar como testigo en un juicio a favor de un activista que, como él hizo en su blog, había denunciado la muerte de miles de niños en el terremoto que asoló la provincia en mayo de 2008 por la mala construcción de las escuelas que los sepultaron. El Gobierno mintió y lo negó todo, como siempre.

El artista y "bloguero" es una de las voces más críticas con el régimen dictatorial de su país. Weiwei asegura que la sociedad china no es estable y que se encuentra fragmentada entre ricos que son cada vez más ricos y pobres que son cada vez más míseros.

Ai Weiwei lleva tiempo denunciando la situación de ausencia absoluta de libertad y los atropellos a los derechos humanos en su país, la corrupción y los abusos de poder y el silencio de la Comunidad Internacional, arrodillada ante el poderío económico chino.

Por todo ello, se plantea a la consideración de

**Ai Weiwei artista eta "blogari" txinatarrari elkartasuna eta babesa adierazteari buruz** (Tramitatzeako onartzea)  
(09/11.02.01.0181)

Mahaiak, 2009ko abenduaren 21eko bileran, erabaki du tramitatzeako onartzea, batzordean eztabaidatzeko, Mistoa-UPyD legebiltzar-taldeak egindako LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari eta Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaren Batzordeari bidal dakiela eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

Legebiltzar-taldeen, Legebiltzarrean indarrean dagoen Erregelamenduko 173.3 artikuluan adierazita-koari jarraituz, zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, argitalpen hau egin eta hurrengo zazpi egun baliodunen barruan, Mahaiari idazki arrazoitua bidaliz.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**  
**Arantza Quiroga Cia**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Gorka Maneiro Labayen Mistoa-UPyD taldeko legebiltzarkideak indarrean dagoen Erregelamendua baliatuz, ondoko legez besteko proposamena aurkezten du, Ai Weiwei artista eta "blogari" txinatarrari elkartasuna eta babesa adierazteari buruz, Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaren Batzordean eztabaidatzeko.

Arrazoiak:

Ai Weiwei Txinan eraginik handiena duen artista da, baita, nazioartean, interesgarrietako bat ere. Bere ospea erabili ohi du bere herrialdeko agintarien zentsura eta abusuak salatzeke. Irailean *in extremis* operatu zuten, burmuinean isuri bat izan zuelako, poli-ziaren kolpeen ondorioz. Pekin bere jaioteritik Sichu-nera joana zen, epaiketa batean lekuko aritzera, akti-bista baten alde. Aktibista horrek, berak ere bere blo-gean egin zuen bezala, salatu egin zuen 2008an pro-bintzia hori suntsitu egin zuen lurrikaran milaka ume hiltzearen arrazoa: gaizki eraikitako eskolak haien gainean jausi zirela. Gobernuak, gezurrak esanez, dena ukatu zuen, beti bezala.

Artista eta blogari hori bere herrialdeko diktadu-raren kritikaririk gogorrenetako bat da. Esan duenez, Txinako gizarteak ez da egonkorra; aldiz, zatituta dago, aberatsak gero eta aberatsagoak eta behartsuak gero eta behartsuagoak baitira.

Ai Weiwei aspalditik salatzen ari da bere herrial-dean inolako askatasunik ez dagoela, giza eskubideak urratzen direla, ustelkeria eta botere-abusuak daudela, eta Nazioarteko Erkidegoa isilik dagoela, Txinaren botere ekonomikoaren aurrean belauniko.

Horregatik guztiagatik, Eusko Legebiltzarrari



la Cámara la siguiente

**PROPOSICIÓN NO DE LEY**

El Parlamento Vasco muestra su apoyo y solidaridad al artista y comprometido "bloguero" en la defensa de los derechos humanos y de la libertad de expresión en China, Ai Weiwei.

Así mismo, el Parlamento Vasco condena las diferentes formas de represión que despliega China contra todos aquellos ciudadanos que deciden hablar libremente y denunciar la corrupción y la ausencia de derechos humanos así como luchar por la libertad, y le insta a poner fin a dicha represión y a que se democratice.

La presente resolución se enviará a la embajada de China en España.

Vitoria-Gasteiz, 15 de diciembre de 2009

**Gorka Maneiro Labayen, parlamentario del grupo Mixto-UPyD**

\*\*\*

aurkezten diogu, eztabaida dezan, ondoko

**LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA**

Eusko Legebiltzarrak bere babes eta elkartasuna agertzen dizkio Ai Weiwei artista eta blogari konprometituari, bera Txinan giza eskubideak eta adierazpen-askatasuna aldeztzen ari baita.

Era berean, Eusko Legebiltzarrak Txina gaitzesten du, askatasunez hitz eginda ustelkeria eta giza eskubiderik eza salatzen dituztenak eta askatasunaren alde borrokatzen direnak zenbait modutan zapaltzeagatik, eta zapalkuntza hori amaitu eta demokrazia ezartzeko eskatzen dio.

Ebazpen hau Txinaren Espainiako enbaxadari bidaliko zaio.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko abenduaren 15a

**Gorka Maneiro Labayen, Mistoa-UPyD taldeko legebiltzarkidea**

\*\*\*



***Sobre solidaridad y apoyo al artista y "bloguero" chino Ai Weiwei*** (Enmiendas)  
(09/11.02.01.0181)

La Mesa, en su reunión del día 16 de febrero de 2010, acuerda admitir a trámite las siguientes enmiendas presentadas a la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Mixto-UPyD, y ordena su remisión a la Comisión de Derechos Humanos y Solicitudes Ciudadanas y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco**  
**Arantza Quiroga Cía**

**GRUPO PARLAMENTARIO MIXTO-EZKER BATUA BERDEAK**

**ENMIENDA DE TOTALIDAD**

"El Parlamento Vasco condena las diferentes formas de represión mediante las que se cercena la pluralidad política y la libertad de expresión en cualquier país del mundo. Consecuentemente, el Parlamento Vasco recuerda al Gobierno chino que el respeto a los derechos humanos y las libertades democráticas, en particular la libertad de expresión, forman parte esencial del progreso de los pueblos".

**GRUPO PARLAMENTARIO SOCIALISTAS VASCOS**

**Enmienda n.º 1**  
**DE MODIFICACIÓN del punto segundo**

Se propone la modificación del punto segundo, quedando redactado con el siguiente tenor literal:

"2. Así mismo, el Parlamento Vasco condena todas las formas de represión que sufren los 'blogeros', los artistas, los pacifistas y filólogos chinos que ven censuradas sus denuncias pacíficas y ven reprimido su derecho de libertad de expresión".

**Enmienda n.º 2**  
**DE ADICIÓN**

"3. El Parlamento Vasco se une a las instituciones que hacen públicas las situaciones que artistas, 'blogeros', activistas, periodistas, pacifistas, filólogos, etc... con respecto al recorte de derechos y libertad de expresión, viven en diferentes partes del mundo".

**GRUPO PARLAMENTARIO POPULAR VASCO**

**ENMIENDA DE MODIFICACIÓN**

El párrafo segundo de la Proposición no de Ley quedará redactado de la siguiente manera:

"Asimismo, el Parlamento Vasco condena la vulneración de los derechos humanos y las diferentes

***Ai Weiwei artista eta "blogari" txinatarrari elkar-tasuna eta babesa adierazteari buruz*** (Zuzenketak)  
(09/11.02.01.0181)

Mahaiak, 2010eko otsailaren 16ko bileran, erabaki du tramitatzeko onartzea Mistoa-UPyD legebiltzar-taldearen legez besteko proposamenari aurkeztutako ondoko zuzenketak, eta agindu du Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaren Batzordeari bidal dakizkiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara daitezela.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**  
**Arantza Quiroga Cía**

**MISTOA-EZKER BATUA BERDEAK LEGEBILTZAR TALDEA**

**OSOKO ZUZENKETA**

"Eusko Legebiltzarrak gaitzetsi egiten ditu munduko edozein herraldetan aniztasun politikoa eta adierazpen-askatasuna murrizten dituzten zapalketa-mota guztiak. Beraz, Eusko Legebiltzarrak Txinako Gobernuari gogorarazten dio giza eskubideak eta askatasun demokratikoak, bereziki adierazpen-askatasuna, errespetatzea ezinbestekoak direla herriek aurrera egin ahal izateko".

**EUSKAL SOZIALISTAK LEGEBILTZAR TALDEA**

**1. zuzenketa**  
**2. puntua ALDATZEKOA**

Proposatzen dugu bigarren puntua aldatzea. Honela geratuko da hitzez hitz:

"2. Era berean, Eusko Legebiltzarrak gaitzesten du 'blogari', artista, bakezale eta filologo txinatarrak pairatzen duten errepresioa, era guztiatara, modu baketsuan egiten dituzten salaketan zentsura eta askatasunez hitz egiteko eskubidearen zapalkuntza jasaten ari dira-eta".

**2. zuzenketa**  
**GEHITZEKOA**

"3. Eusko legebiltzarrak ere, beste erakunde batzuen antzera, agerian utzi nahi ditu munduko hainbat lekutako 'blogari', aktibista, kazetari, bakezale, filologo eta abarrek bizi dituzten egoerak, zehazki eskubideen eta adierazpen-askatasunaren murrizketen ondorioz sortutakoak".

**EUSKAL LEGEBILTZAR TALDE POPULARRA**

**ALDATZEKO ZUZENKETA**

Legez besteko proposamenaren bigarren lerrokada honela geldituko da idatzita:

"Era berean, Eusko Legebiltzarrak Txinako erregimena gaitzesten du, zeren eta giza-eskubideen urra-



formas de represión que realiza el régimen chino contra todos aquellos ciudadanos que deciden hablar libremente, denunciar la corrupción, luchar por las libertades democráticas y profesar religiones como la cristiana católica o la budista tibetana. E insta al Gobierno chino a que ponga fin a la represión y a que desarrolle el proceso democrático que tiene pendiente".

#### **GRUPO PARLAMENTARIO NACIONALISTAS VASCOS**

##### **ENMIENDA DE ADICIÓN**

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno español a que, en el marco de la presidencia española de la Unión Europea, promueva que ésta vele de forma efectiva por el respeto a los derechos humanos en China.

La presente resolución se enviará a la embajada de China en España y al Gobierno Español".

\*\*\*

ketak eta era ezberdinetako errepresioa erabiltzen baititu askatasunez hitz egitea, ustelkeria salatzea, askatasun demokratikoen alde borrokatzea eta budismo tibetarra edo kristau katolikoa bezalako erlijioak jarraitzea erabakitzen dutenen aurka. Eta Txinako Gobernuari eskatzen dio zapalkuntzari amaiera eman eta dagokion prozesu demokratikoa garatzeko".

#### **EUZKO ABERTZALEAK LEGEBILTZAR TALDEA**

##### **GEHITZEKO ZUZENKETA**

"Eusko Legebiltzarrak Espainiako Gobernuari eskatzen dio, horrek Europar Batasuneko lehendakari-tza eskuratu duenez, sustatu dezala lehendakaritza horrek Txinan giza eskubideen errespetua zaintzeko.

Erabaki hau Txinaren Espainiako enbaxadari eta Espainiako Gobernuari bidaliko zaie".

\*\*\*



***Sobre solidaridad y apoyo al disidente chino Liu Xiaobo, recientemente condenado*** (Admisión a trámite)  
(09/11.02.01.0204)

La Mesa, en su reunión del día 19 de enero de 2010, acuerda admitir a trámite para su debate en comisión la PROPOSICIÓN NO DE LEY formulada por el grupo parlamentario Mixto-UPyD, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y a la Comisión de Derechos Humanos y Solicitudes Ciudadanas, y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

Los grupos parlamentarios, conforme a lo dispuesto en el artículo 173.3 del vigente Reglamento de la Cámara, podrán presentar dentro de los siete días hábiles siguientes al de esta publicación las enmiendas que consideren pertinentes, mediante escrito motivado y dirigido a la Mesa.

**La presidenta del Parlamento Vasco**  
**Arantza Quiroga Cia**

A la Mesa del Parlamento Vasco

Gorka Maneiro Labayen, parlamentario del Grupo Mixto-UPyD, al amparo del vigente reglamento, tiene el honor de presentar la siguiente proposición no de ley para su debate en la Comisión de Derechos Humanos y Solicitudes Ciudadanas, sobre solidaridad y apoyo al disidente chino Liu Xiaobo, recientemente condenado.

Justificación:

Nadie sabe cuántos prisioneros políticos consumen sus vidas en las cárceles de la República Popular China. Lo que es seguro es que su número no decrece. La apertura económica del país ha llevado consigo en los últimos tiempos una mejora en el grado de libertad individual que siguen sin disfrutar los 1.400 millones de habitantes. Pero los límites son claros: no se toleran las críticas hacia el sistema político del país.

Se acaba de demostrar recientemente con la sentencia que condena a Liu Xiaobo a 11 años de prisión por actos de "subversión contra el Estado", concepto etéreo que se aplica de forma arbitraria sobre aquellas personas que resultan incómodas. Curiosamente, la sentencia incluye dos años de supresión de los Derechos Civiles de Xiaobo, una contradicción teniendo en cuenta que ha sido sentenciado por su uso.

Este activista y escritor, que siempre se ha manifestado de forma pacífica, comenzó a exigir reformas democráticas durante las movilizaciones estudiantiles de 1989, que terminaron en un baño de sangre. Ya pagó por ello con varios meses entre rejas primero, y con tres años en un campo de "reeducación" después, en 1996. Desde entonces, sus comunicaciones han estado intervenidas y los ojos omnipresentes del Partido Comunista no le han quitado la vista de encima.

***Kondenatu berri duten Liu Xiaobo txinatar disidenteari elkartasuna eta babesa adierazteari buruz*** (Tramitatzeako onartzea)  
(09/11.02.01.0204)

Mahaiak, 2010eko urtarrilaren 19ko bileran, erabaki du tramitatzeako onartzea, batzordean eztabaidatzeko, Mistoa-UPyD legebiltzar-taldeak egindako LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari eta Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaearen Batzordeari bidal dakiela eta Eusko Legebiltzarren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

Legebiltzar-taldeek, Legebiltzarrean indarrean dagoen Erregelamenduko 173.3 artikuluan adierazita-koari jarraituz, zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, argitalpen hau egin eta hurrengo zazpi egun balio-dunen barruan, Mahaiari idazki arrazoitua bidaliz.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**  
**Arantza Quiroga Cia**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Gorka Maneiro Labayen Mistoa-UPyD Taldeko legebiltzarkideak, indarrean dagoen Erregelamenduz baliatuz, honako legez besteko proposamena aurkezten du, Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaearen Batzordean eztabaidatzeko, kondenatu berri duten Liu Xiaobo txinatar disidenteari elkartasuna eta babesa adierazteari buruz.

Arrazoiak:

Inork ez daki zenbat preso politiko dauden Txinako Herri Errepublikako kartzeletan beren bizitzak ahiitzen. Ziurra da, ordea, zenbateko hori ez dela murrizten. Herrialde hark hasitako zabaltze ekonomikoak halako hobekuntza bat ekarri du banakoien askatasunari dagokionez, nahiz eta hango 1.400 biztanleek halako askatasunaz baliatzerik ez duten. Argi daude, ordea, mugak: Ez dira onartzen herrialde hartako sistema politikoarekiko kritikak.

Halaxe frogatu berri da "Estatuaren aurkako subertsio" ekintzengatik Liu Xiaobo 11 urteko kartzelazigorra ezarri dion epaiaren bidez. Kontzeptu lauso hori aplikatzen diete, era arbitrarioan, deseroso egiten zaizkien pertsoneri. Bitxia da ezen epaiak bi urtez eskubide zibilak ere kentzen dizkiola Xiaobori. Kontraesan bat da hori kontuan hartuz gero eskubide horietan baliatzeagatik izan dela kondenatua.

Ekintzaile eta idazle hau, beti bide baketsuak erabili baititu, 1989ko ikasleen mobilizazioetan, azkenean sarraski bihurtu ziren haietan, hasi zen erreforma demokratikoak exijitzen. Horren ondorioz, hainbat hilabete eman zituen kartzelan aurrena eta hiru urte gero "berreziketarako" esparru batean 1996an. Harez geroztik, interbenituak izan ditu komunikazioak eta Alderdi Komunistak ez dio begirik kendu. Baina Xiaobok ez du sekula utzi burua jan diezaioten. Hain da



Pero Xiaobo se ha negado siempre al lavado de cerebro. Tanto que, el año pasado, coincidiendo con la celebración del 60º aniversario de la Declaración de los Derechos Humanos, participó en la redacción de la polémica Carta 08, que ha sido firmada por más de 10.000 personas, entre ellas una multitud de intelectuales chinos que cuestionan la política del partido único y la falta de democracia. Los 300 impulsores iniciales han sido todos interrogados y algunos están en prisión. Curiosamente, en la Carta 08, considerada la base del cambio político en China y basada en la Carta 77 impulsada por los opositores al régimen checoslovaco, se contemplaba la supresión del delito por el que ahora ha sido condenado Xiaobo.

Son miles las personas y organismos de todo tipo que llevan tiempo denunciando la situación de ausencia absoluta de los derechos humanos en China, la corrupción y los abusos de poder y el silencio de la Comunidad Internacional, arrodillada ante el poderío económico chino.

Por todo ello, se plantea a la consideración de la Cámara la siguiente

#### PROPOSICIÓN NO DE LEY

El Parlamento Vasco muestra su apoyo y solidaridad al disidente y luchador por los derechos democráticos Liu Xiaobo, recientemente condenado en China a 11 años de cárcel por pedir reformas democráticas.

Así mismo, el Parlamento Vasco condena las diferentes formas de represión que despliega China contra todos aquellos ciudadanos que deciden hablar libremente y denunciar la falta de libertad y el desprecio hacia los más básicos derechos humanos, y le insta a poner fin a la represión, a que se democratice y a que libere a todos sus presos políticos.

Vitoria-Gasteiz, 14 de enero de 2010

**Gorka Maneiro Labayen, parlamentario del grupo Mixto-UPyD**

\*\*\*

horrela ezen iaz, Giza Eskubideen Adierazpenaren 60. urteurrenaren karietara, 08 Gutun polemikoaren presaketan parte hartu baitzuen, 10.000 lagun baino gehiagok sinatua bera, haien artean hainbat intelektual txinatarrek, alderdi bakarrek politiketa eta demokraziarik eza salatzen baitute. Hasierako 300 bultzatzaileak galdekatuak izan dira eta haietako batzuk kartzelan dira. Bitxia da ezen 08 Gutunean, Txinako aldaketa politikorako oinarritzat hartzen baita eta Txekoslovakiako erregimenaren aurkakoek bultzatutako 77 Gutunean oinarritzen baita, orain Xiaobo kondenatzeko arrazoia izan den delitua ezabatzeke eskatzen zela.

Milaka dira era guztietako pertsona eta erakundeak aspalditik salatzen ari direnak Txinako inolako giza eskubiderik eza, hango ustelkeria eta botere-abusua eta Nazioarteko Komunitatearen isiltasuna, belanikaturik baitago txinatarren aginte ekonomikoaren aurrean.

Horregatik guztiagatik, Legebiltzarrak azter dezan aurkezten dugu ondoko

#### LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

Eusko Legebiltzarrak babesa eta elkartasuna adierazten dizkio Liu Xiaobo disidente eta eskubide demokratikoen aldeko borrokalariari, zeina berriki ezarri baitiote Txinan 11 urteko kartzelazigorra erreforma demokratikoak eskatzeagatik.

Era berean, Eusko Legebiltzarrak kondenatu egiten ditu Txinak askatasunez hitz egitea eta askatasunik eza eta oinarritzko giza eskubideekiko mespretxua salatzea erabakitzen duten herritar guztien aurka erabiltzen dituen errepresio-modu guztiak, eta eskatzen dio geldiaraz dezala errepresioa, demokratizatu dadila eta aska ditzala preso politiko guztiak.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urtarrilaren 14a

**Gorka Maneiro Labayen, Mistoa-UPyD taldeko legebiltzarkidea**

\*\*\*



***Sobre solidaridad y apoyo al disidente chino Liu Xiaobo, recientemente condenado*** (Enmiendas)  
(09/11.02.01.0204)

La Mesa, en su reunión del día 16 de febrero de 2010, acuerda admitir a trámite las siguientes enmiendas presentadas a la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Mixto-UPyD, y ordena su remisión a la Comisión de Derechos Humanos y Solicitudes Ciudadanas y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco**  
**Arantza Quiroga Cia**

**GRUPO PARLAMENTARIO MIXTO-EZKER BATUA BERDEAK**

**ENMIENDA DE TOTALIDAD**

"El Parlamento vasco condena las diferentes formas de represión mediante las que se cercena la pluralidad política y la libertad de expresión en cualquier país del mundo. Consecuentemente, el Parlamento vasco recuerda al Gobierno chino que el respeto a los derechos humanos y las libertades democráticas, en particular la libertad de expresión, forman parte esencial del progreso de los pueblos".

**GRUPO PARLAMENTARIO POPULAR VASCO**

**ENMIENDA DE MODIFICACIÓN**

El párrafo segundo de la proposición no de ley quedará redactado de la siguiente manera:

"Asimismo, el Parlamento Vasco condena la vulneración de los derechos humanos y las diferentes formas de represión que realiza el régimen chino contra todos aquellos ciudadanos que deciden hablar libremente, denunciar la corrupción, luchar por las libertades democráticas y profesar religiones como la cristiana católica o la budista tibetana. E insta al Gobierno chino a que ponga fin a la represión, libere a los presos políticos y desarrolle el proceso democrático que tiene pendiente".

**GRUPO PARLAMENTARIO NACIONALISTAS VASCOS**

**ENMIENDA DE ADICIÓN**

"El Parlamento Vasco, insta al Gobierno Español a que, en el marco de la presidencia española de la Unión Europea, promueva que ésta vele de forma efectiva por el respeto a los derechos humanos en China.

La presente resolución se enviará a la embajada de China en España y al Gobierno Español".

\*\*\*

***Kondenatu berri duten Liu Xiaobo txinatar disidenteari elkartasuna eta babesa adierazteari buruz*** (Zuzenketak)  
(09/11.02.01.0204)

Mahaiak, 2010eko otsailaren 16ko bileran, erabaki du tramitatzeko onartzea Mistoa-UPyD legebiltzar-taldearen legez besteko proposamenari aurkeztutako ondoko zuzenketak, eta agindu du Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaearen Batzordeari bidal dakizkiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratu daitezela.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**  
**Arantza Quiroga Cia**

**MISTOA-EZKER BATUA BERDEAK LEGEBILTZAR TALDEA**

**OSOKO ZUZENKETA**

"Eusko Legebiltzarrak gaitzetsi egiten ditu munduko edozein herraldetan aniztasun politikoa eta adierazpen-askatasuna murrizten dituzten zapalketa-mota guztiak. Beraz, Eusko Legebiltzarrak Txinako Gobernuari gogorarazten dio giza eskubideak eta askatasun demokratikoak, bereziki adierazpen-askatasuna, errespetatzea ezinbestekoa dela herriek aurrera egin ahal izateko".

**EUSKAL LEGEBILTZAR TALDE POPULARRA**

**ALDATZEKO ZUZENKETA**

Legez besteko proposamenaren bigarren lerrokada honela geldituko da idatzita:

"Era berean, Eusko Legebiltzarrak Txinako erregimena gaitzesten du, zeren eta giza-eskubideen urraketak eta era ezberdinetako errepresioa erabiltzen baititu askatasunez hitz egitea, ustelkeria salatzea, askatasun demokratikoen alde borrokatzea eta budismo tibetarra edo kristau katolikoa bezalako erlijioak jarraitzea erabakitzen dutenen aurka. Eta Txinako Gobernuari eskatzen dio zapalkuntzari amaiera eman, preso politikoak askatu eta dagokion prozesu demokratikoa garatzeko".

**EUZKO ABERTZALEAK LEGEBILTZAR TALDEA**

**GEHITZEKO ZUZENKETA**

"Eusko Legebiltzarrak Espainiako Gobernuari eskatzen dio, horrek Europar Batasuneko lehendakari-tza eskuratu duenez, sustatu dezala lehendakaritza horrek Txinan giza eskubideen errespetua zaintzeko.

Erabaki hau Txinaren Espainiako enbaxadari eta Espainiako Gobernuari bidaliko zaie".

\*\*\*



**Juan Jose Rego Vidal euskal presoaren egoerari buruz** (Tramitatzeko onartzea)  
(09/11.02.01.0205)

Mahaiak, 2010eko urtarrilaren 19ko bileran, erabaki du tramitatzeko onartzea, batzordean eztabaidatzeko, Mistoa-Eusko Alkartasuna legebiltzar-taldeak egindako LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari eta Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordeari bidal dakiela eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

Legebiltzar-taldeen, Legebiltzarrean indarrean dagoen Erregelamenduko 173.3 artikuluan adierazita-koari jarraituz, zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, argitalpen hau egin eta hurrengo zazpi egun baliodunen barruan, Mahaiari idazki arrazoitua bidalizi.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**  
**Arantza Quiroga Cia**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Jesus M. Larrazabal Antia Mistoa-Eusko Alkartasuna taldeko legebiltzarkideak, indarrean dagoen Erregelamenduaren arabera, honako legez besteko proposamen hau aurkeztu du, Giza Eskubideen Batzordean presako tramitazioari jarraituz eztabaidatzeko, Juan Jose Rego Vidal euskal presoaren egoerari buruz.

Zioa:

Espetxe Politikak beti giza duintasuna aintzat hartu behar duela eta bere helburua mendekua ez dela jakinda, Zigor Kodearen 92. artikulua eta Espetxeen Erregelamenduaren 104. artikulua baldintzapeko askatasuna ematea aurreikusten dute presoek gaixotasun larriak eta sendaezinak pairatzen dituztenean edota, haien osasun egoera ikusita, hiltzeko arriskuan daudenean. Legebiltzar honek ere irizpide horiek bere egin ditu behin baino gehiagotan eta, horri jarraituz, egoera horretan dauden presoen askatzea bultzatzea eskatu zion aurreko legegintzan Barne Ministerioaren Espetxe Zuzendaritzari.

Juan Jose Rego Vidal 70 urteko donostiarra da 15 urte daramatza preso eta aurreko parrafoan aipatutako artikuluek aurreikusitako baldintzak betetzen ditu aske geratzeko, haren osasun egoera benetan larria baita eta hiltzeko arrisku handian baitago. Izan ere, 2009ko uztailean bularreko angina diagnostikatu zioten medikuek eta abenduan ere beste bat izan zuen; bere egoerak, gainera, okerrera egin du geroztik eta hil honen 6an Dueñasko kartzelatik Palentziako ospitalera presaz eraman behar izan zuten, bihotzekoak jota.

Rego Vidalek gaitz zerebrobaskularra pairatzen du 1988az geroztik eta egun duen arrisku kardiobaskularra oso handia da; hori ez ezik, diabete mellitus delakoa eta hipertentsioa ere baditu eta ikusmena ia galduta dauka, entzumen-arazoak ere izateaz gain.

**Sobre la situación del preso vasco Juan Jose Rego Vidal** (Admisión a trámite)  
(09/11.02.01.0205)

La Mesa, en su reunión del día 19 de enero de 2010, acuerda admitir a trámite para su debate en comisión la PROPOSICIÓN NO DE LEY formulada por el grupo parlamentario Mixto-Eusko Alkartasuna, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y a la Comisión de Derechos Humanos y Solicitudes Ciudadanas, y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

Los grupos parlamentarios, conforme a lo dispuesto en el artículo 173.3 del vigente Reglamento de la Cámara, podrán presentar dentro de los siete días hábiles siguientes al de esta publicación las enmiendas que consideren pertinentes, mediante escrito motivado y dirigido a la Mesa.

**La presidenta del Parlamento Vasco**  
**Arantza Quiroga Cia**

A la Mesa del Parlamento Vasco

Jesus M. Larrazabal Antia, parlamentario del grupo Mixto-Eusko Alkartasuna, al amparo del vigente Reglamento, presenta la siguiente proposición no de ley para su debate urgente en la Comisión de Derechos Humanos, sobre la situación del preso vasco Juan Jose Rego Vidal.

Justificación:

Sabemos que la política penitenciaria siempre debe tener en cuenta la dignidad humana y que su objetivo no es la venganza, de este modo, el artículo 92 del Código Penal y el artículo 104 del Reglamento Penitenciario prevén la concesión de la libertad condicional a los presos que sufran enfermedades muy graves con padecimientos incurables, o a aquellos que, por su estado de salud, vean su vida en peligro. Este Parlamento ha hecho suyos esos criterios en más de una ocasión y, en consecuencia, en la anterior legislatura solicitó a Instituciones Penitenciarias del Ministerio de Interior que promoviera la puesta en libertad de las personas presas que se encuentren en dicha situación.

El donostiarra de 70 años, Juan Jose Rego Vidal, lleva casi 15 años preso y cumple las condiciones previstas para su puesta en libertad según los artículos mencionados en el párrafo anterior, dado que su estado de salud es grave y su vida corre grave peligro. En julio de 2009, los médicos le diagnosticaron una angina de pecho y en diciembre sufrió una segunda; además su situación se ha agravado desde entonces. El 6 de enero fue trasladado de urgencia de la prisión de Dueñas al hospital de Palencia por un ataque al corazón.

Rego Vidal sufre desde 1988 una enfermedad cerebrovascular y su riesgo cardiovascular actual es muy importante; además, también sufre diabetes mellitus e hipertensión, tiene la vista casi perdida y ciertos problemas de audición. Visto su estado de salud y



Bere osasun egoera nolakoa den ikusita eta bere adina kontuan hartuta, lehenbailehen aske uztea derrigorrezkoa da giza duintasunean oinarritutako ikuspegi batetik. Horrela ez balitz, mendekuak hartuko luke Justiziak bete behar duen lekua.

Hori dela eta, honako legez besteko proposamen hau aurkezten da, Giza Eskubideen Batzordean presazko tramitazioari jarraituz eztabaidatzeko, Juan Jose Rego Vidal euskal presoaren egoerari buruz:

1. Eusko Legebiltzarrak Barne Ministerioaren Espetxeen Zuzendaritza Nagusiarri eskatzen dio gaixotasun larriak eta sendaezinak dituzten presoek askatzea bultzatzea dezala kartzelan jarraitzeak pertsona horien bizitza arriskuan jartzen duenean, horretarako Zigor Kodearen 92. artikulua eta Espetxeen Erregelamenduaren 104. artikulua diotenaren gaineko interpretazio-irizpide zabal bat erabiliz.
2. Ildo horri jarraituz, Eusko Legebiltzarrak Espetxeen Zuzendaritza Nagusiarri eskatzen dio Juan Jose Rego Vidal presoaren osasun-egoera larria aintzat hartu eta berehala aske utzi dezala, osasun-ikuspuntua eta ikuspegi psikologiko batetik behar duen arreta jasotzeko ahal izan dezan.

Presaren arrazoia:

Juan Jose Rego Vidalek bihotzekoa izan zuen hil honen 6an eta, bere koadro kliniko osoa kontuan hartuta, kartzelan ematen duen egun bakoitzean hiltzeko arriskua gero eta handiagoa da. Beraz, lehenbailehen aske egon behar du bere egoeran behar duen arreta medikua bermatzeko eta berari ere dagokion bizitzeko eskubidea babesteko.

Gasteizen, 2010eko urtarrilaren 15ean

**Jesus M. Larrazabal Antia, Mistoa-Eusko Alkartasuna taldeko bozeramailea**

\*\*\*

teniendo en cuenta su edad, desde el punto de vista de la dignidad humana, es preciso dejarlo en libertad cuanto antes. Si no fuera así, la venganza ocuparía el lugar que le corresponde a la Justicia.

En consecuencia, presentamos la siguiente proposición no de ley, para su debate urgente en la Comisión de Derechos Humanos, sobre la situación del preso vasco Juan Jose Rego Vidal:

1. El Parlamento Vasco insta a la Dirección General de Instituciones Penitenciarias del Ministerio de Interior a que promueva la puesta en libertad de las personas presas que tengan enfermedades graves o incurables cuando su continuación en prisión ponga en peligro sus vidas, empleando a tal fin, una interpretación extensiva del artículo 92 del Código Penal y del artículo 104 del Reglamento Penitenciario.
2. Asimismo, el Parlamento Vasco insta a la Dirección General de Instituciones Penitenciarias a que tome en consideración el grave estado de salud del preso Juan Jose Rego Vidal y le conceda la libertad para que pueda recibir la asistencia sanitaria y psicológica que precisa.

Motivo de la urgencia:

Juan Jose Rego Vidal sufrió un infarto el día 6 de este mes y, teniendo en cuenta su cuadro clínico completo, cada día que pasa en la cárcel aumenta el peligro que corre su vida. Por lo tanto, debe estar en libertad para garantizar la asistencia médica que necesita y para proteger el derecho a la vida que también a él le corresponde.

Vitoria, 15 de enero de 2010

**Jesus M. Larrazabal Antia, portavoz del grupo Mixto-Eusko Alkartasuna**

\*\*\*



**Sobre la situación del preso vasco Juan Jose Rego Vidal** (Enmiendas)  
(09/11.02.01.0205)

La Mesa, en su reunión del día 16 de febrero de 2010, acuerda admitir a trámite las siguientes enmiendas presentadas a la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Mixto-Eusko Alkartasuna, y ordena su remisión a la Comisión de Derechos Humanos y Solicitudes Ciudadanas y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco**  
**Arantza Quiroga Cia**

**GRUPO PARLAMENTARIO MIXTO-UPyD**

**ENMIENDA DE TOTALIDAD**

"El Parlamento Vasco desea mostrar su reconocimiento a los empleados públicos que desarrollan su labor en Instituciones Penitenciarias, una labor que, en múltiples ocasiones, se realiza en unas difíciles condiciones laborales y que está encaminada a la consecución de la reinserción social, tal como señala el artículo 25.2 de la Constitución Española.

El Parlamento Vasco insta a la Secretaría General de Instituciones Penitenciarias a que continúe con el estudio riguroso y pormenorizado, tal como se realiza en la actualidad, de todos aquellos casos de penados enfermos muy graves, con padecimientos incurables, en que, por razones humanitarias, fuese factible la aplicación del tercer grado, así como la propuesta al Juzgado de Vigilancia Penitenciaria de la libertad condicional".

**GRUPO PARLAMENTARIO SOCIALISTAS VASCOS**

**ENMIENDA DE TOTALIDAD**

"El Parlamento Vasco insta a la Secretaría General de Instituciones Penitenciarias para que, de conformidad con lo dispuesto en el art. 92 del Código Penal y en los artículos 100.2 y 104.4 del Reglamento Penitenciario, siga desarrollando una política penitenciaria respetuosa con la dignidad de las personas, basada en criterios de proporcionalidad y humanidad que permita dar el tratamiento adecuado a Juan Jose Rego Vidal informando a este Parlamento de la situación en que el mismo se encuentra en la actualidad".

\*\*\*

**Juan Jose Rego Vidal euskal presoaren egoerari buruz** (Zuzenketak)  
(09/11.02.01.0205)

Mahaiak, 2010eko otsailaren 16ko bileran, erabaki du tramitatzeko onartzea Mistoa-Eusko Alkartasuna legebiltzar-taldearen legez besteko proposamenari aurkeztutako ondoko zuzenketak, eta agindu du Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordeari bidal dakizkiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara daitezela.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**  
**Arantza Quiroga Cia**

**MISTOA-UPyD LEGEBILTZAR-TALDEA**

**OSOKO ZUZENKETA**

"Eusko Legebiltzarrak aitortu egin nahi du espetxeetako enplegatu publikoen lana, askotan lan baldintza zailetan egiten baita eta bergizarteratzea lortzera bideratuta baitago, Espainiako Konstituzioaren 25.2 artikulua adierazitakoaren arabera.

Eusko Legebiltzarrak Espetxeetako Idazkaritza Nagusiari eskatzen dio jarrai dezala zorrozki eta zehaztasunez aztertzen, gaur egun egiten den bezala, gaixotasun larriak eta sendaezinak pairatzen dituzten presoek kasuak, zeinetan arrazoi humanitarioengatik hirugarren gradua aplikatu eta Espetxeratuak Zaintzako Epaitegiari baldintzapeko askatasuna proposa daitekeen".

**EUSKAL SOZIALISTAK LEGEBILTZAR TALDEA**

**OSOKO ZUZENKETA**

"Eusko Legebiltzarrak Espetxeetako Idazkaritza Nagusiari eskatzen dio, Zigor Kodearen 92. artikuluan eta Espetxe Erregelamenduaren 100.2 eta 104.4 artikuluetan adierazitakoaren arabera, jarrai dezala garatzen proportzionaltasunean eta gizaterian oinarritutako espetxe-politika, pertsonen duintasuna errespetatuz, Juan Jose Rego Vidali trataera egokia eman ahal izateko, eta Legebiltzarrari jakinarazi diezaioala preso hori gaur egun zein egoeratan dagoen".

\*\*\*

